



Jakes Sarraillet

1.- Hautetsien Kontseiluak mamirik gabeko intzaur kuskua da, hala nola Auzapezen Biltzarra, ez baita ahalmen politikozko erabakigune bat. Horretan ibiltzen direnek, pentsatzen edo nahi luketena baizik ezin dute erran. Eta denak aho batez mintza balitez oraino, zerbaitetarako on liteke presione gisan, baina hori ez da kasik nehoiz gertatzen.

Garapen Kontseiluak bere konklusioetan egiten dituen proposamenak ene ustez hiru gisatara tratatuak izanen dira (hori erran dezakegu orain, jakin baitugu abenduaren 15eko CIATek Garapen Kontseiluaren plana ontzat eman duela, zenbait alorretan bederen).

Hiru gisatara, zeren gaur egun frantses estatuan, ahalmen politikoak hiru erakunderen artean banatuak direlaketz: guber-nua, eskualdea eta departamentua. Bakoitzak bere ahalmen ere-mu berezia badu eta ohargarria da egiazki, Euskal Herriaren-dako euskaldunek landu eta egin proposamenak, gure herritik kanpoko egitura arrotz batzuek behar dituztela bideratu!

Horrek argi eta garbi adierazten du ez direla proposa-men guztiak gauzatuko, euskal herritarrek eta beren dirua edo erabaki ahala kudeatzen dutenek, hainbat puntutan (adibi-dez, premiazkotasunari buruz) ez dutelaketz ikusmolde bera.

2.- Dударik ez da euskal departamentuak jende anitz biltzen due-la bere inguruan, bizi sozialaren arlo guztietakoak eta nekez ikusten da nola estatua gor egoiten ahalko den luzaz horrela-ko eskaera sozial azkar baten aitzinean. Horrek ez du erran nahi baitezpada departamentu berri bat sortuko duela, baina bai nolabait erantzun baten emaitera bortxatua izanen dela. Lehengo gobernuarekin gertatu zen bezala, *pays delakoaren* izendapenarekin.

Dena den departamentua ote da Ipar Euskal Herrian sortu behar litzatekeen egitura egokiena? Nik horri erantzuten dut, neurri handi batean, ez. Zeren departamentuak ofizialki ezagutzen baldin badu Ipar Euskal Herria muga administrati-

bo berri batzuk ezarriz (eta oraino hori ere ikusi beharko da nola pikatua izango den), haatik konpetentzien aldetik oso urria da departamentuaren egitekoa: zerbitzu sozialak, bide batzuen kudeantza edo kultura mailan subentzioen banaketaz ez da biziki haratago joaiten. Nehondik ere ez du bere eskuetan Garapen Kontseiluaren proposamenak bidertzeko ahala.

Nik uste dut haratago joaitera entseiatu behar dugula eta behar dugula momentu hau hobeki baliatu, bereziki eskaera sozialari erantzuteko momentuan. Azken finean, jendea euskal departamentu baten alde agertzen bada inkestetan, erran nahi du egitura politiko aldaketa bat eskatzen duela, baina ez du nehandik ere erran nahi beste zerbaiten kontra denik.

Izan ere azken hilabete hauetan beste aukera bat dago departamentuaren itzalean: autonomia estatutu bat. Hori da ene arabera bide egokiago bat, alde batetik hemendik atera den ideia delako (menpekotasunarekin hautsi nahiz), hemen landua eta gogoetatua, hemengo beharrei erantzuteko eta bestetik, pentsatu izan den moduan, ahalmen politiko handiak litzuzkeen egitura baita, etorkizuneko erronkei buru egiteko gai litzatekeena (adibidez, bistan da, Garapen Kontseiluak egin proposamenen behar bezala bideratzeko).

3.- Dudarik ez, Ipar Euskal Herriak harremanak behar dituela ukan inguruko lurralde guztiekin: naturalak eta interesatuak Hegoaldeko biekin, bereziki proiektu amankomunak bultzatzeko batzen gaituzten eremuetan (asko bada). Bestalde, elkarrekiko lan horrek kontuan hartu beharko luke Euskal Herriaren nazio izaera honen ezagupena bultzatzeko. Interesatuak ere denbora berean, Hegoaldetik, laguntzak etor litezkeelako garapen ekonomikoaren bultzatzeko.

Gero ipar Euskal Herriak Akitaniarekin eduki behar litzuzkeen harremanak, interesatuak eta naturalak direla errango dut, guretako Ipar eta Ekialde Europako atea baita ekonomia mailan eta aspaldikoak eta azkarrak direlaketz harreman historiko eta kulturalak. ♣